

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzua: 2026ko lehenengo hiru hilekoari dagokion zerga errolda jendaurrean jartzea eta diru bilketako epea adieraztea**

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2026ko lehenengo hiru hilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsiko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean.

2026ko maiatzaren 1etik 2026ko ekainaren 15era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

#### ORDAINTZEKO ERA.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du zuzenean ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan egindako kargua 2026ko ekainaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (kobratze jakinarazpenarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren web orrian (Nire Ordainketa).

#### GOMENDIOAK.

Bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, bai eta bizileku aldaketak ere, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu beharko dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2026ko martxoaren 24a

*Alkatea*

*NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR*